


2016-01-06

 Ez, ez da akats tipografiko bat; izaretaz hitz egin nahi dut eta ez da mamu mehatxu bat. Izan ere, maindire artean bilduta iratzartzea iruditu zait “Star Wars: The Force Awakens” (J.J. Abrams, 2015) ikuskatzea: leku ezagun eta atsegin batean begiak irekitzea, ohe epelean, lehitotik eguzki izpi batzuk trabesean begietan ematen dizutela. Ezin lokartzeko estampa goxoa.

Txikitan [ETB1-ean lehen aldiz ikusi nuen trilogia originaleko pelikulen](#) eskemetara itzultzea da sagako zazpigarrena. Aurreikusi daitezkeen pertsonai sare eta tramak, ondo jositako aurreko gertaerei keinuak... [Jar-Jar Binks-i buruzko teoria zoroak](#) ahaztuarazten dizkigu atal berriak, nahiz eta emakumeen paperak partzialki eguneratuta [Bechdel testa](#) pasatzeko [lanak](#) beharko dituen.

Feminista? Ez du Bechdel testa gainditzen, Mad Maxen azkenaren linean (3/3)

— Ander Bolibar (@demonocrazy) [December 18, 2015](#)

Gasteizeko Florida zinemetan ikusi genuen estreinaldia eta Euskal Herria izanagatik ez ziren mozorrotutako eraso soldadurik, Darth Vader-ik edo Leia printzesarik falta, ezta martxa inperialaren konpasik estreinaldira sartu edo irtetzean. Karteldegia erakusteko Raspberry Pi bat erabiltzen duen zinemak beti izango du nire errespetua.

<https://twitter.com/txertatua/status/675757405318356992>

Izarak aipatuta, atalik traperoen ere iruditu zait, *maker*-ena. Berez, badu brikolajetik Jediek beraien ezpata laser propioak egite horrek, baina oraingoan gainera, txatarrerora da protagonista eta hainbat espaziontzi hackeatzeko kapaza. BB8 errobotarekin Disneykoek ere asmatu dutela esango nuke eta ez soilik akzio eszenen dinamitasunean, baita [170€ inguruan erosi daiteken erreplika fidelean](#). Eta nola ez, badaukagu jadanik bertsió librerik, tartean James Bruton youtuber eta Star Wars fan britaniarrarena. Itzeleko lana James-era: Arduino txartelak, 3D inprimagailua eta emaitza ikusgarria. [Bere Youtube kanalean](#) kuxkuxeatzera animatzen zaituztet.

Edonola, irudimena pizten diguten izara arteko gerrek badute arriskurik. Nagusia aurreko belaunaldien “etorkizun” [bermakilatuen](#) nostalgian erortzearena. Kontakizun berriak eskertuko genituzke, unibertso eta eskema berrien markoan. Eman diezaiegun ostikoa izareei eta egin diezaiegun kasu begietan jotzen diguten eguzki izpiei: euskal [Solarpunk](#) unibertso bat; zergatik ez?

Zabaldu:

- [Click to share on Twitter \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Telegram \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on WhatsApp \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Pocket \(Opens in new window\)](#)